

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Onespena ematea zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen 2026ko erroldari

Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen 2026ko errolda egin da, eta jendaurrean jartzen da, interesa dutenek aukera izan dezaten aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkezteko. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2026ko uztailaren 3a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA